

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

EH Bilduk izandako
sakon-sakoneko lorpena **IÑAKI ALTUNA > 9**

KOADERNOA

Abstentzio isila
JOANA GARMENDIA > 17

2020ko uztailaren 18a | XIV. urtea • 680. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



**SANTXIKORROTAREN TAUPADAK
ZARTATZEN DITU BARDEAK > 10**

Jagoba MANTEROLA | FOKU



Siriako presidenteak hogei urte egin ditu agintean; bederatzi, gerra gordin-gordinean 04




Santxikorrota, aberatsei ezpata eta behartsuei errota 10

«Greenwashing»-a al da ingurumenaz baliatzen den edozein iragarki? 14

Elkarrizketa: Jonatan Molina Torres, haur eta nerabeen psikologoa, autismoan eta hiperaktibitatean aditua 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



SINADURAK:

03 Maite Ubiria Beaumont: Frantziar ultraeskuinaren estrategia sarraskijalea

08 Ander Gortazar Balerdi: Tabako egunak

09 Iñaki Altuna: EH Bilduk izandako sakon-sakoneko lorpena

13 Amaia Ballesteros

15 Xabier Mikel Errekondo: Uztailaren 18a

16 Gorka Zozaia: Bueltan da zentzu berria

17 Joana Garmendia: Abstentzio isila

22 Maitena Usabiaga Sarasua: Normalitate berria

{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Frantziar ultraeskuinaren estrategia sarraskijalea

Baionako karriketan uztailaren 8an eginiko martxa zuriko parte-hartzaileek babesa adierazi zioten handik gutxira hil zen Chronoplus-eko autobus-gidari Philippe Monguillot-en familiari. Milaka herritarrek, eraso lazgarria jasan zuen langilearen gertukoei sostengua emateaz gain, gizarte bortizkeriak sortzen dituen galderak erdigunean kokatu zituzten, zeharka arazo konplexuei errazkeriaz erantzuteko arriskuaz ohartaraziz.

Adierazgarria izan zen eraso gertatu orduko harilkatu zen iritzi korronte bikoitza. Sare sozialek, lehenik, eta arduradun publikoen adierazpenek, ondoren, lurraldearen arabeko posizio ezberdinak agertu zituzten.

Biktimarekiko elkartasun mezuak eta justiziaren aldeko keinuak tartekatu ziren, ezinbestean, hiri mailan egin ziren adierazpenetan. Familiak berak une zeharo zailetan erabili zuen tonuak eta Monguilloten lankideek, segurtasunaren auziari iskin egin gabe, babesaren eremuan kokatu zuten eztabaida. Autobus-gidariaren emaztea eta hiru alabak besarkatzea lehenetsi zuten, eta, aldi berean, enpresak langileei segurtasun baldintzak bermatzeko ardura duela gogorarazi zuten –eremu guztietan bermatzekoa, ez soilik erasoak irudikatzen duen arriskuaren aurrean–. Hartara, mina gertutik sentitu zutenek eztabaida markoa ezarri zuten, gertakariak hirian sortutako zirrarrari adierazpide naturala eskainiz.

Bestetik, sare sozialek oso bestelako korrontea islatu zuten. «Fatxosfera» berehala saiatu zen segurtasunaren gaineko auziaren mamua zabaltzen, salbuespenak salbuespen, baionarren mezueta nagusitu zen elkartasun taupadari herraz beteriko iruzkinak gehituz. Irizpide hexagonalen arabera aletu zuten afera, eta horrek estrategia sarraskijaleari lurra hartzea zaildu zion. Martxa zuria zipriztindu nahi horretan ez zituzten tokiko aliatuak

aurkitu. Besteak beste, ekainaren 28an amaitutako herriko bozek agerian utzi zutelako tokiko eremuan ultraeskuinak leku eskasa duela. Hala ere, Philippe Monguillotek azken hotsa eman ondoren, Parisek familia eta hiriaren dolua errespetatu eta ultraeskuineko sarraskijaleen jokabidea gelditzera jokatu ordez, bigarren mugimendu kezagarri bat egin zuen. Baiona kolpatu zuen gertakari latza aitzakia hartuta, Emmanuel Macron frantses presidentek gobernua eraberritu osteko lehen mailako ministro baten bisita antolatu zuen. Nor helduko Baionara eta Gerald Darmanin Barne ministroa bera, nor eta exekutiboaren eraberritze prozesuan ika-mikaz harago samina ere eragin duen kargudun berria.

Darmanin, atzean «bortizkeriaren itzala» duena, autoritatearen diskurtsoa iltzatzeraz heldu zen. 2009an emaz-

Baionako komisariatik atera al zen gidariaren heriotzaren harira salaketa faltsua ahalbidetu zuen argazkia? Gezurra lanabes duen ultraeskuinak itzal berria jarri du Darmanin ministro ilunaren gainean

te bati bere «aurrekari judizialak» zuritzearen truke sexu-harremanak izateko proposamena egin zion Darmaninek. Bere defentsak egitate hori onartu du, nahiz eta bortxaketa akusazioa gezurtatu duen. «Gizonen arteko» solasaldia izan ondoren, Macronek herritarren segurtasuna bermatzeko ardura eman dio.

Baionako gertakaria herra eta salaketaren sistema guzteratzen ekartzeko baliatu du ultraeskuinak. Baionako hirian erasoak utziriko zauriari gatz bota dio Macronek, emazte eta gizonen arteko berdintasuna bere presidentetzaren ardatz nagusitzat finkatu zuela ahaztu, eta supremazismo matxista erreproduzituz. Bi jokabide horiek ez dute tokirik lurralde honetan. •

AL-ASSADTARREN PATUA

Siriako presidentek 20 urte bete ditu agintean; 9, gerra gordin-gordinean

Boterean 20 urte bete ditu iragan asteen Baxar al-Assadek. Egungo Siriako presidentek bere aita, dinastiaren sortzailea, hildakoan hartu behar izan zuen kargua.

Herrialdearen irekiera demokratikoarekiko itxaropen guztiak zapuztuta, 9. urtea du herrialde arabiarrek gerran. Krisi ekonomikoa eta politikoa puri-purian dira.

Britainia Handian hazia eta ikasia, eta oftalmologia ikasketak burututa, ez zuen agian sekula pentsatuko, baina Siriako presidente bilakatu zen Baxar Al-Assad 2000. urteko uztailearen 10ean, bere aita eta dinastia eratu zuena, Hafez al-Assad, ekainaren 10ean, 69 urte zituela, zendu eta hilabetera.

 **POLITIKA** / Dabid Lazkanoiturburu

2000ko uztailean hartu behar izan zuen Siriako presidente kargua Baxar al-Assadek, bere aita beste oinordekorik gabe hil zenean. Botereari eutsi dio 20 urteotan, Hafez al-Assaden irakasgai autoritarioari jarraituz, baina 9. urtea hasi berri duen gerrak utzitako ondorioak larri ordainduta. Assadtarren patua.

Hogei urte geroago, hain justu datorren abuztuan, bederatzi urte beteko dituen Siriako gerrari eusten jarraitzen du Baxar al-Assadek, nahiz eta askok 2011. urte hartan (eta batez ere 2012ko udan) Siriako erregimena agortutzat eman zuten, edo genuen.

Al-Assad aitaren eta semearen jarraitzaileak, 2000. urtean haien irudiak erakusten. RAMZI HAIDAR

Gerrari eutsi bai, baina Siriak eta siriarrak ordaindu duten prezioa izugarria izan da eta izaten jarraitzen du. Arlo guztietan, humanitariotik hasita eta herrialdea pairatzen ari den krisialdi politikoa –erregimenaren barne liskarrak– ahaztu gabe, krisi ekonomikoa barne.

34 urte besterik ez zituen Baxarrek bere aita hil zenean eta inork gutxik (berak ere ez ziur asko) pentsatuko zuen sekula boterera iritsiko zenik. Harik eta Hafez al-Assad gaixo zegoela –bihotzeko baten ondorioz hilzorian egon zen aurretik – Baxar gaztearen anaia zaharrena eta oinordekoa, Bassel, 1994an auto istripu batean hil zen arte.

DAMASKOKO UDABERRIA

Baxar al-Assadek erreformista irudia zuen eta askok espero zuten ekonomia arloan liberalizazioa eta askatasun politikoa ekarriko zituela.

Bere aita hil eta hilabetera, plebiszitu batean botoen %97rekin presidente hautatu zuten.

Boterera horrela iritsita, «urduritasuna zen nagusi egun haietan, Siriak ez baitzuen aspaldi trantsizio baketsurik eza-gutu», gogoratu du Center for Global Policy hausnarketa zentroko adituak.

«Hala ere, kezka hori berehala baztertu zen, Baxarrek boterera iritsi eta gaztetasunaren eta modernitatearen irudia ematen zuela ikusita».

Urtebete lehenago, 2010ean, errege gazteek hartu zuten oinordekotza Jordanian eta Marokon, eta nolabaiteko aldaketa-itxaropena hedatu zen herrialde osoan.

Sirian aditua den Georgetown Unibertsitateko Daniel Neep ere bat dator: Baxar al-Assad «erregimeneko beste ordezkari batzuekin alderatuta guztiz bestelakoa zen, gaztea, atzerrian ikasia...».

Gauzak horrela, hurrengo hilabeteetan, Siriako intelektual, abokatu eta irakasleak topaketa politikoak antolatzen hasi ziren eta erreformen aldeko komunitatuak idazteari eta banatzeari



ekin zioten. «Damaskoko udaberria», 40 urte beldurrez eta isilik eman ostean, parentesi pentsaezina bilakatu zen ordu-ra arte salbuespen egoeran bizi zen herrialdean.

Ez zuen asko iraun parentesiak, ordea.

Oposizioa berehala jarri eta atxilotu zuen erregimenak. Liberalizazio ekonomikoarekin bai, horrekin jarraitu zuen, baina bere erara. Horrela, aberastasunak eskuratzeko «hil ala biziko lehia hasi zen Baxarren zirkuluan», kontatu du Faysal Itanik.

«Berdintasun falta eta desoreka areagotu egin ziren arlo ekonomiko eta sozialean, eta klase ertaina eta nekazaritza mundua izugarri pobretu ziren», azaldu du adituak.


Haserrea piztu zuen horrek eta haserre horrek 2011ko udaberrian eztanda egin eta Udaberri Arabiarra ekarri zuen; aurreko urteko lehortek eta politikarienganako jendearen nazkak ere lagundu zuten.

AITAREN ITZALA

Teoria asko zabaldu dira Baxar al-Assadek sortu zuen itxaropena nola zapuztu zen azaltzeko. Beldurrak, inertziak, erregimenaren oreka zail eta tirabiratsuak mantendu beharra... Hala ere, guztiek Hafez al-Assad bere aitaren itzal handira garamatzate, erregimenaren muinera, hain zuzen.

30 hamar urte luzez gogor eutsi zion botereari Hafez al-Assadek, 1970eko azaroaren 16an, Defentsa ministro zela, estatukolpe batekin Nouredine Atassi presidentea kargutik bota ondoren.

Hiru egun lehenago, gauza bera egin zuen «Berreskuratze Mugimenduaren» izenean Assad jeneralak bere etsai guztiekin, tartean Baaz alderdiko or-



dezkari nagusia zen Salah Jedidekin.

1971eko martxoaren 12an hartu zuen presidente kargua Hafez al-Assadek erreferendum baten bitartez, bere semeak 30 urte beranduago lortuko zituen antzeko emaitzekin (%100 alde, boto-emaile bat edo bi salbu). Biztanleriaren %10 osatzen duten alaiaren komunitatetik sortutako lehen agintaria zen (Sirian gehiengo sunita da, eta alaiak xiitak dira).

Hafez al-Assaden estatua zapata ahoan duela, Maaret al-Numan herri matxinatuko museoan; mundu arabiarrean egin dakioken mespretxu keinurik handiena da. Bulent KILIC/AFP

Siriako agintari goren berria Israelen aurkako gerrarekin estreinatu zen. Egiptorekin batera, bi herrialde arabiarrek 1967ko Sei Eguneke Gerran galdu zituzten lurraldeak berreskuratzeko erasoaldiari ekin zioten 1973ko urrian, Suezko kanalaren mendebaldean eta Golaneko goi-lautadaren ekialdean. Kostata, eta galera asko jasan eta gero (6.000 soldadu hil ziren), Israelek erasoaldiari aurre egitea

lortu zuen, arabiarren artean 8.500 hildako eraginez.

Yom Kippur Gerrak (juduek emandako izena) edo Ramadaneke Gerrak (arabiarren izena) eragin handia izan zuen herrialdean eta mundu osoan.


Gerra berehala amaitu eta bi aldeek gauzak zeuden bezala mantentzeko akordioak sinatu bazituzten ere, orduko Sobietar Batasunak eskaini zien laguntza militarrek Errusiaren alde bultzatu zituen gobernu arabiarrek; Israel garaiezina zelako mitoa hautsi zen eta AEBen eta Israelen arteko lotura are estua goa bihurtu zen.

Hala ere, Hafez al-Assadek txanpon guztiak Moskuren alde jokatu zituela uste duena oker dabil. Henry Kissingerren parte-hartzea ezinbestekoa izan zen gerra eteteko eta hurrengo urtean, 1974an, Richard Nixon AEBetako presidentea Damaskora joan eta bi herrialdeen arteko harremanak berreskuratu zituen.

MAJLOUF LEHENGUSUAREKIN LISKARREAN

Al-Assad aita bere anaia Rifaatekin auzia izan zuen bezala, Al-Assad semeak bere lehengusua eta Siriako pertsonarik aberatsena den Rami Majloufekin ditu tirabirak. Besteak beste, SyriaTel telefonia konpainiaren jabe da Baxar al-Assaden amaren anaiaren semea; ustelkeria egotzi diote eta Gobernuak bere enpresen kontu guztiak izoztu ditu, ordaindu gabeko 235 milioi euro exijitzen dizkiolako. Bide batez, lehengusuak zuen milizia eta

alderdi parafaxista, Alderdi Sozial-Nazionalista Siriarra, desegin egin du. Majloufek harreman ezin hobeak ditu Libanoko Hezbullarekin eta Iranekin. Bere aita, Mohamed Majlouf, Moskun bizi da eta Baxar al-Assaden irudia, eta batez ere honen emazte Asmarena (sunita) zikintzen aritu da. Ez da bi familien arteko lehen liskarra. 2005ean majlouftarrek bost hilabetez Dubaira ihes egin behar zuten.



Baxar gaztea, Hafez al-Assaden hilobiratzean (betaurrekoak jantzita). Ondoko irudian, aita, zahartuta baina bizirik. AFP

1976. urteko ekainean, Siriako Armada, AEBen bedeinkapenarekin, Libanoko gerran buru-belarri sartu zen, 15 hilabeteko lis-karren ondoren palestinarren aurka galtzeaz zeuden kristau maronitei laguntzeko.

Behin Libano kontrolpean zuela, Damaskok hautsi egin zuen maronitekin ituna eta 30 urteko okupazio militarri eta aginte politikoari hasiera eman zion.

Siriak Irakekin zituen harremanak ere ez ziren batere onak, bi herrialdeetan Baath alderdiak agintean zeuden arren (edo daudelako).

Saddam Husseinek 1979an boterera iritsi eta berehala bera kargutik botatzeko saiakera egin izana leporatu zion Al-As-sadi.

Irango gerran Teheranen alde egin zuen Damaskok eta Irakek harreman guztiak hautsi zituen Siriarekin. 1990-1991 bitartean

bi herrialde arabiarren arteko tirabirak handitu egin ziren. Ohiko pragmatismoa erabiliz, Sobietar Batasunaren desegitearen ostean, Al-Assadek Washingtonekin harremanak estutu zituen.

Gobernu panarabiarren artean, Siria izan zen Irak Kuwaiten indarrez sartu ondoren AEBen inbasioarekin bat egin zuen barrenetakoa.

Hala ere, kanpora begirako pragmatismoarekin batera, barnera begirako errepresioa zen

Hafez al-Assadek matxinada islamista sunita suntsitu zuen 1982an eta ohean hil zen. Baxarrek Udaberri Arabiarrak gerra bihurtu, eta irabazteko bidean da, kosta ahala kosta

Aitak bere anaia Rifaat erbestera bidali zuen barne-tirabirak izan ondoren. Semeak bere lehengusu Majlouf aberats eta handinahikoarekin dauka auzia

Al-Assaden erregimenaren mui-na; Mujaabat polizia politikoak eta, beharrezkoa zenean, Armadako talde bereziek gauzatzen zuten errepresio hori.

1982ko otsailean, erregimenak islamisten matxinada suntsitu zuen Hama hirian, Siria erdialdean. 10.000-40.000 hildako inguru utzi zituen hilabete luze batez al-Assaden anaia Rifaat-ek gidatzen zituen Defentsarako Brigaden eliteko talde militarren errepresioak.

Hiru urte lehenago, 1979an, Alepo hirian (iparraldeko hiri-buru ekonomikoan) 80 kadete alai hil ziren akademia militar baten aurkako atentatuaren ostean, erregimenak gogor ekin zion Anaia Musulmanen aurka, eraso mugimendu islamiar sunitari egotzi ondoren.

Egia da garai hartan mundu arabiar osoan Anaia Musulmanen sektore batzuek borroka armatua defendatzen zuten estra-

tegiarekin bat egin zutela. Egia da, halaber, Al-Assad eta enparauiak baliabide guztiak erabiltzeko prest zeudela gehiengo sunitaren eta islamaren izenean boterea aldarrikatzen zuen edonori aurre egiteko.

RIFAAT BEREAK ESKATZEN

1983ko azaroan, Al-Assad presidentea, bihotzekoak jota, hilzorian egon zen hainbat orduz Damaskoko ospitale batean.

Bere anaia Rifaat, Haman eskaini zituen zerbitzuak aldarrikatu eta boterea eskuratzen saiatu zen.

Apustua gaizki atera zitzaion eta, erregimenaren zutabeetako bat izanik ere, Siriatic alde egin behar izan zuen hurrengo urtean.

Gaitza eta barne-krisia gaindita, Hafez al-Assadek Mendebaldearekiko harremanak lantzen jarraitu zuen. 1994ko

urrian Bill Clinton AEBetako presidentea Damaskon izan zen.

1998ko uztailean, Hafez al-Assad bera izan zen Parisera iritsi zena, Mendebaldeko herrialde batera 23 urtean egindako lehen bisita ofizialean. Jacques Chirac presidente frantsesak harrera beroa egin zion.

Al-Assadtarren dinastiaren sortzaileak ez zuen, ordea, gaitza gaindituta, eta 2000. urteko ekainaren 10ean, 69 urterekin, hil egin zen. Chirac da Damaskon haren hiletan izan zen agintari bakarra.

Bassel bere oinordeko naturala hilda, eta erregimenaren barnean tirabirak itxi gabe, Baxar al-Assad izan zen hautatua, sistema horri segida eman eta bizirik jarrai zezan.

PATUAREN INDARRA

«Damaskoko udaberriaren» desengainuaren ondoren, Baxar al-Assad gaztea nazioartean bere aitak lortu zuen arrakastari eusten saiatu zen. 2008an Uztailaren 14ko Paris-ko desfilea gonbidatu zuen Nicolas Sarkozy presidente frantsesak.

2011ko Udaberri Arabiarra gogor zapaldu zuen, Hafez al-Assaden irakaspenei jarraituz. Baina errepresio horrek eragin zuen gerra zibilak sekulako lurrikara sortu zuen, eskualdean eta munduan. Mendebaldea Assaden burua eskatzen zuten ondoan jarri zen eta AEBek eta Europar Batasunak zigor ekonomikoak ezarri zizkioten Damaskori.

Gerra hasi zenetik bederatzi urte igaro dira eta Baxar al-Assadek boterean jarraitzen du, eta hori ez da gutxi. Gerra ia guztiz irabazia du, eta Idleb probintzian eta inguruan dau den Alepoko eta Hamako eskualdeetako herri batzuetan

baino ez du aurka matxinada armaturik. Matxinoen artean gehienak, gainera, elkarren artean tiroka ari diren jihadistak dira.

Irango Armadari eta bere agindupean borrokatzen diren xiiten miliziei, eta batez ere Errusiari zor die, ordea, Damaskok, garaipena.

Hori gutxi balitz, Errusiak Turkia neotomandarraren aldarrikapenak izan behar ditu kontuan eta Ankarak mugaz bestaldeko lur eremu siriar handia kontrolpean du.

Kurduak ere Rojavako eta Siriako basamortuko hainbat lurralde dituzte, AEBetako Armadaren laguntzarekin. Siria zatituta dago eta potentzien gudu-zelai bilakatu da.

Estatu Islamikoa Europan erasotzen hasi zenean, Mende-

baldeak ontzat eman zuen Al-Assadtarren erregimena eta alde horretatik lasai egon daitezke Baxar eta enparauak.

Donald Trump AEBetako presidenteak ezarri berri dizkion zigor ekonomikoek siriarrei egingo diete kalte, ez erregimenari.

Hala ere, ekonomikoki hondoa jo duen Siriarentzat azken kolpea izan liteke.

Libanok bizi duen muturreko krisialdiaren eraginez, eta 9 urteko gerraren ondorioengatik, Siriako monetak ez du baliorik. Idleb probintzia «matxinatuan» lira turkiarra erabiltzen ari dira; Rojava kurduarrian, AEBetako dolarrak. Damaskok aurtan esperantza bakarra du, gari uzta oparoa izatea. Oparoa bai, baina gerra hasi aurrekoaren ia-ia erdia.

Eta gaitz erdi, bestela askok ogirik ere ez lukete izango.

Al-Assad aitaren agindupean herrialdea txiroa zen eta Siria, Estatu poliziala, baina politikoki egonkorra zen eta eskualdean pisu handia zuen.

Libano kontrolpean zuen eta Hezbollah indar armatua erabiltzen zuen Israelen aurka egiteko. Orain, Jainkoaren Alderdi xiita ez dago Damaskoren esanetara. Aitzitik, Siriako gerran utzi dituen milaka hildakoen ordaina exijitzen du Hezbollah-k, Iranek bezala. Errusiaren begiradapean.

Baxar al-Assadek gerra irabazi du –irabazarazi diote, hobeto esanda–. Baina itxura guztien arabera bakea galdu du. «Baxar edo kaosa» zioten gerra garaiko leloek. Biak hor daude, Sirian.

Siriako presidentea Vladimir Putinen eta Sergei Shoigu Errusiako Defentsa ministroaren alboan, Hmeim-eko base militar errusiarrean. Mijail KLIMENTYEV | AFP





Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

Tabako egunak



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

Mudantza bat ez da drama bat, baina bada sintoma bat. **Tobacco Days** liburu dendak Tabakalera utzi eta 700 metrora irekiko ditu berriz ateak, Gros auzoan, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa liburu dendarik gabe utziz. Erabakiaren arrazoiaren zaurian piko egin gabe, porrot txiki baten moduan ikusten dut. Porrot ñimiñoa halako eraikin erraldoi batentzat? Nondik begiratzen den.

Tabakalerak bost urte beteko ditu irailean, handitan zer izan nahi duen oso garbi izan gabe. Hitz potoloak bai –produktzioa, pentsamendua, arte garaikidea, ikus-entzunezkoak–, baina horiek guztiak lotuko dituen hari koherente bat topatzea gero eta gehiago kostatzen da. Badira, bai, erakusketak, eta zinema-programazio duin bat eta zine-eskola, eta liburutegi berritzaile bat eta tailerrak. Bulegoak ere franko, gehienak kultura munduarekin zerikusia duten instituzioenak, bizpahiru denda –hiru lehen, bi orain– eta ostalaritza eskaintza arrakastatsu bat. Eta hotel bat. Baina horiek guztiak proiektu ulergarri baten aterkipean biltzeko saiakerak huts egiten badu –eta ez al da hori gertatzen ari?–, Tabakalera ez da funtzioz betetzeko zailtasunak dituen espazio handiegi bat baino. Bisitan etorri ziren lagun poloniarren begirada intuitiboaren arabera, «eraikin huts handia». Horratx arrisku bat.

Positiboa al da hirian, deszentralizatuta, funtzionatzen zuten hainbat ekimen autonomo kaxa handi berean zen-

tralizatzea? Garai batean boladan zegoen “sinergia” hitza, agian orain beste hitz bat da modan dagoena.

Bosgarren urteurrena ate-joka dugun honetan, testuinguruari erreparatzea ere komeni da, etor daitekeenari aurrea hartzeko soilik bada ere. Abiadura handiko trenaren geltokiaren lanak berehala dira hastekoak, inguruari zentraltasun are handiagoa emango diotenak. Geltokiaren estalkiak plaza erraldoi bat sortuko du Tabakalera gainean eta, eraikinarekin nolabait lotzen ez bada behintzat, apenas izango du funtzionatzeko aukerarik. Ikusi beharko da ea eraikinaren proiektu arkitektonikoa hori erraz onartzeko gai den ala ez. Hor bada aukera bat, baina baita beste arrisku bat ere, eraikina pixkanaka geltokiaren gorputz-adar bat bilakatzekoa. Era berean, Tabakalera hegoaldean ordenazioz kanpo dauden hainbat eraikin daude, esperoan, higiezinaren presioa noiz konplitu zain, eta hor proposatuko den horrek ere eragingo dio Tabakalerari.

Autobus eta abiadura handiko trenaren geltokiak, Egia-ko pasabideak eta Tabakalerak hiri-pieza berezi bat osatzen/osatuko dute. Aldaketa konstantean egongo den organismo bizi baten tankerakoa imajinatzen dut eta, beste hirietako antzeko adibideak buruan, interes, inertzia eta estrategia ezberdinen arteko batailatxo konstante baten moduan ere bai. Kultura, etekin ekonomikoa, turismoa, zerbitzu publikoa, mugikortasuna, kontsumoa, produktzioa eta beste hainbat aktore nor baino nor, hiri-pieza hori haien beharretara lerratzeko lehian. •

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

EH Bilduk izandako sakon-sakoneko lorpena

EH Bilduk bozen %27,85 lortu zituen joan den igandean izandako hauteskundeetan, inoiz baino gehiago. Batek baino gehiagok esango du datu horrek izandako abstentzio izugarriarekin duela zerikusia eta, egiari zor, horrela dela aitortu behar da. Hau da, abstentzioa txikitu ahala, seguru asko, portzentaje hori ere jaitsiko litatzeko, hainbat boz boto emaileek bizkarraren eman dieten alderdieetara bueltatuko liratekeelako. Izan ere, abstentzioa ez da homogenea. Hauteskundeetan eta egoera politiko zein sozialaren arabera, gehiago eragiten die alderdi batzuei besteei baino.

Nolanahi ere, oso nabarmenezkoa da EH Bilduk, abstentzioa hainbeste handituta ere (zazpi puntutik gora egin du 2016ko hauteskundeekin alderatuta), portzentajea ez ezik, boz kopuruan ere gora egin izana. Kasik 23.000 boto gehiago lortu ditu. Askoz jende gutxiagok bozkatu du eta, halere, boz kopuru handiagoa lortu du. Ez da gutxi beste alderdi nagusi guztiek bozak galdu dituztelarik.

Ontzat emanda ere parte hartze handiagoarekin EH Bilduk lortuko lukeen boz portzentajea txikiagoa litzatekeela, indar politiko hori ez litzateke 2011-2012ko hitzorduetan izandako emaitzetatik oso urruti ibiliko. Eta horixe da aurrera begira politikoki aztertu beharreko daturik esanguratsuena.

2011ko udaberrian udal eta foru hauteskundeetan Bildu aurkeztu zen; 2011ko azaroan, Amaiur Espainiako Kongresu eta Senatura, eta, 2012an, EH Bildu Gasteizko Parlamentura. Bide horretan, ezker abertzalearen eta EAre arteko akordioa izan zen lehen urratsa, eta ondoren etorri ziren Aralar eta Alternatiba, betiere alderdirik gabeko hainbat norbanakorekin batera.

Hasiera hura izan zen indar metaketa berri horren gailurra, eta marka hura lortu izanak zerikusia handia izan zuen orduantxe ezker abertzaleak estrategia alda-

tu izanarekin eta ETak borroka armatua uzteko hartutako bidearekin. Nolabait esatearren, hori dena saritu zuten hautesleek. Ziklo aldaketa bultzatu izana saritu zuten bozaren bitartez.

Jakina, hain emaitza onak lortzea zaila bada, are zailagoa da emaitza horiei denboran eustea, eta lehen garapen horren ostean higadura ere etorri zen hurrengo urteetan eta hauteskundeetan. Ez zen beherakada azkarra izan, ezkerreko abertzale eta subiranisten boz eta indarra ez baita inoiz likidua izan, baina beherako joera hartu zuen. Normala ere bazen maila batean behera egitea horrenbesteko arrakasta lortu ostean.

Oraingoan berriro ere ezkerreko soberanisten eskaintza horrelako mailara iritsi izanak esanahi politiko handia du. Oraingo emaitzak ez baitio ez ezker aber-

EH Bilduren emaitzak ez dio ez ezker abertzalearen estrategia aldaketari ez ETaren erabakiei erantzuten. Beste estadio batean sartu da

tzalearen estrategia aldaketari ez ETaren erabakiei erantzuten. Hura amortizatuta dago dagoeneko, onerako zein txarrerako. Beste estadio batean sartu da EH Bilduren proiektua, arrakastatsu; gai izan delako indar metaketa berritzeko, etorkizunerako alternatiba gisa agertu delako, orain arte uzkur zituen beste sektore batzuetara iristeko gai izan delako, ezkerreko ikuspuntutik eremuak zabaltzeko, aliantza politikan aukerak zabaltzeko, zenbait kasutan –Madrilen edota Nafarroan, esate baterako– erabakigarri izan delako... Ez da soilik aurreko zikloa ixteko ahaleginaren isla, hori ere izan arren; etorkizuneko proiektutzat ere aurkez dezake bere burua EH Bilduk. Ez da gutxi, baina, jakina, oraindik ere ez da nahikoa. •

SANTXIKORROTA, ABERATSEI EZPATA ETA BEHARTSUEI ERROTA

Beñat Hach Embarek Irizar

XV. mendean jaio zen Cascanten Santxo, gurasoek zaintzen zuten errotan. Horregatik esaten zioten lagunek Errotako Santxiko –hortik, Santxiko Errota eta Santxikorrota–. Errotan bizi zelarik arazo bat izan zuen eta legearen itzaletik ihesi bizi behar izan zuen, Bardean. Kondairak dio Robin Hood-en antzera aritu zela, zeukanari kendu eta ez zeukanari ematen.

Gurea herri txikia da, puntarik puntara autoz hiru ordu eta erdian gurutzatzeko modukoa, eta, zorioenez, zinez askotari-koa eta aberatsa da hamaika zentzutan. Pentsa, basamortua ere badugu.

Bardeak txunditu egiten du bisitari zein inguruko. Castildetierrako argazki ikonikoaz eta Bardea Zuriaz gaindi, bere 42.000 hektareek askoz ere gehiago dute eskaintzeko, bai Planoan eta bai Bardea Beltzean zehar. Kirola, turismoa, historia... Landaredi eta fauna oparoa dauzka, nahiz eta azken hamarkadetan uniforme berdez eta tresneria militarrez leporaino sartu diren espezie inbasoreek ez dioten batere mesederik egiten.

Lur buztintsu, bakarti eta isolatu honek ez die soilik mendialdeko artzainei eta basakatuiei eman babes. Mendetan barna gaizkile, errepresaliatu eta legegabeek Bardean topatu zuten euren lurralde librea, ofizialki erregearena izan arren zaila baitzitzaion halako lur terreno zabala kontrolpean izatea.

“Gaizkile” horien artean ezagunena, zalantza izpirik gabe, Santxikorrota da. Lucio Urtubia anarkista cascantearra bankuak desjabetzen hasi baino bost mende lehenago bere herrikide bat ere antzeko zereginetan aritu zen. Sareko gune ezberdinetatik jaso dugu infor-



mazioa eta, nagusiki, Kepa Arburuaren “Santxikorrota, Bandolero de las Bardenas” liburutik. «Patakon, daukonari kendu eta ez deukonari emon», esaten da bidelapur bizkaitarraz, eta halatsu ziharduen Santxikorrotak ere.

Bostehun urteren ondotik, zaila (edo ezinezkoa) da garai hartako bidelapur baten historia zehatz-mehatz jasotzea, eta, Patakon zein Robin Hood-ekin gertatzen den bezala, historia eta istorioa maiz nahasten dira. Kuriositate gisa aipatzekoa da “Robin Hood, Prince of the Thieves” filmaren zati ugari (Audrey Hepburn eta Sean Connery protagonistak ziren hura) Artaxoan filmatu zirela, eta «aberratsei kendu eta pobreei ematen» zien pertsonaia unibertsal horri buruzko pelikula Nafarroan filmatzen zen bitartean, kilometro eskasetara gauza berbera egiten zuen heroi propio baten kondaira gutxi batzuek besterik ez zutela ezagutzen. Herri batek

Lerro hauen gainean, Bardeako paraje zoragarria. Lur lehor horietan ezkutatzen da Santxikorrotaren istorioa. Alboko orrialdean, duela bost mendeko Nafarroako bizitza irudikatzen duten marrazkiak. Beheko aldean, Santxikorrota izeneko mendia eta mendiaren tontorrean paratu zuten ezkutalekua.



Jagoba MANTEROLA | FOKU - GAUR8

bere historia kontatu behar duen bezala, bere fikzioa ere sortu behar du.

ERROTATIK ERROETARA

XV. mendean Nafarroa eri zegoen, agaramontarren eta beaumontarren arteko gerra zibilak odolustuta. Agaramontarrak XII. mende hasieran Nafarroako Antso VII.ak sortu zituen, eta beaumontarrak, Nafarroako Karlos III.ak, bere sasiko familiarekin sortuta eta Nafarroa Behereko Luxe leinuarekin aliatuta. Nafarroako Erresuman, ohituraz, handiek ez zuten lurraldeko jaurerririk, eta edukiz gero, ez ziren oinordetzarako. Baina Karlos III.ak ohitura hori bertan behera utzi, eta Erresuman eskubide feudalak izateko aukera eman zuen. Horrek agaramontarren eta beaumontarren arteko liskarrak azkartu zituen.

Testuinguru horretan jaio zen Santxo, bere gurasoek zaintzen zuten erro-
tan. Errota Queiles ibaiaren ondoan ze-



goen, eta Cascanteko jaunaren jabetza-koa zen. Santxo txikia, bere lagun eta ingurukoentzat “Errotako Santxiko” bihurtu zen; hau da, Santxiko Errota; hots, Santxikorrota (Erriberan euskaraz ez dela sekula hitz egin esaten diuzuen hurrenari kontatzeko aproposa).

Errotan zerealak eta olibak ehotzen ziren, eta Erdi Aroan erabat estrategikoak zirenez, Nafarroan lehian zebiltzan bi bandoek ahalik gehien izan nahi zituzten kontrolpean. Ezin da jakin errota eskuratu nahi zuen noble bat edo gehiegikerietan zebilen zerga biltzaile bat zen, baina kontua da Santxikorrotak norbait akabatu zuela eta horregatik egin behar izan zuela alde.

Cascantearra Bardea Beltzera iritsi zen lehenik, eta bertan zeuden ikazkinak lagunduta legearen atzaparretatik

ihesi bizi zirenekin elkartu zen. Asko ziren, gehienak soldadu izandakoak, edo pobreziak eta miseriak lapurretara bultzatuak. Antso Indartsuaren garaitik zebiltzan bidelapurrak Bardean, eta bertatik pasatzen ziren karabana eta bidaiari ugari jasandako erasoak zirela-eta, 1204. urtean ermandade bat sortu zen Aragoi eta Nafarroako muga inguruan zeuden hainbat herriren artean: Hesolaren Ermandadea. Edo nahiago bada “estakaren anaitasuna”, erraza baita izena entzunda zertan jarduten ziren sumatzea. Kofradiako edo zeinek zuen bidelapur kontsideratzen zuen oro akabatzeko eskubidea.

Baina errotan gertatutako krimenaren erroa ez zen hesolazaleen politikarekin konpontzen, herriak pasatzen zuen miseriari amaiera emanez baizik,

gosea bezalako deaburrik ez baita munduan.

BARDEAKO ERREGE

Santxikorrota 30 lagun ingururekin elkartu zen, eta bere ezaugarriak zirela eta, buruzagi izendatu zuten berehala. Merkataria, erregearen karabanak, bidaiari aberatsak... bat baino gehiago utzi zuten larrubizirik. Ihes egitean uzten zituzten urratsei segika, halako batean erregearen soldaduak ohartu ziren gaizkile taldearen zaldiek ferrak alderantziz jarrita zeuzkatela. Ondoren, jasotakoa taldekideen artean banatzen zuten, baita inguruko herrietako jendeari eman ere opari zein salerosketen bidez, eta ondorioz, bidelapur talde honek oso fama ona zeukan herritar xumeen artean. Jendea gosea pasatzen ari zen, izurri-

teak, eta gainera horretan guztian bate-re laguntzen ez zuen errege bat eta bandoen gerra bat jasan behar zuten. Santxikorrota heroia bat zen haientzat. Erregearen soldaduek egunez jartzen zituzten karteak iragartzen zuten Santxikorrota hiltzen edo atxilotzen zuenak 200 florineko ordaina jasoko zuela; herritarrek gauez kentzen zituzten.

Taldeak ezkutaleku bat zeukan, noski. Bardeako basamortuaren erdian Blanca Baja izeneko eremua dago, Pisuquerra mendigunearen magalean, El Rallonen alboan. Bertan 320 metroko mendixka bat dago, “Santxikorrota” izena mantentzen duena oraino. Aragoiko mugatik bi kilometro eskasera dago, eta bertan zeukaten kobazuloko basetik bi erresumetan egiten zituzten arpilatzeak.





Telesailen urrezko aroaren gakoetako bat argi-ilunak dauzkaten pertsonaiak izatea omen da, aurretik zeuden serieetako pertsona oso on edo oso txar horietatik bereiziz. Gordelekuari buruz kontatzen den istorioa egia bada, hemen dugu Santxikorroren alde mal-tzurrena: kobazuloa eraikitzen lagundu zutenak gero hil egin omen zituen, bere ezkutalekua non zegoen inori kontatu ez ziezaioten. Kondaira edo erre-alitatea den, Santxikorroren inguruan kontatzen diren beste gauza askoren gisan, batek daki!

Santxikorroren taldeak botere handia zeukan eremu hartan, eta azkenean

Bardea legetik ihesi zebiltzanentzat ezkutaleku aproposa zen duela mende batzuk, garaiko agintarien eskuetatik aparte samar geratzen zelako. Horregatik, gaizkile askoren ezkutalekua izan da.
Jagoba MANTEROLA | FOKU

Kondairak dioenez, kobazuloa eraikitzen lagundu zutenak gero hil egin omen zituen Santxikorrotak, bere ezkutalekua non zegoen inori kontatu ez ziezaioten. Ezin jakin zenbat duen elezaharretik eta zenbat egiatik


Joan II. zen Nafarroako eta Aragoiko errege. Haren soldaduekin borrokaldi luze bat izan eta gero hil zen Santxikorrota. Soldaduek hilotza inguruko herrietan paseatu eta Tuteran zintzilikatu zuten

errotarien semeari “Bardeako Erregea” esaten zioten.


MATXINADA ETA HERIOTZA

1451. urtean Bardea inguruan zeuden hainbat herritarrek bizi zuten egoera jasangaitza zen, gosea eta gaixotasunak zirela-eta. Jendea herrietatik atera eta bidean aurrera zihoazela jendea batzen joan zitzairen: Valtierra, Cadreita, Castejon, Arguedas, Corella, Cabanillas, Fustiñana... denak Tuterara bidean, gaztelu aurrean haien haserrea erakustera. Herriaren oihuei altzairuarekin erantzun zieten noble nafarrek, eta, Kepa Arburuak dioenaren arabera, lehen aldiz egun hartan erabili zen Tuterako gazteluko kanoia.

Joan II.a zen Nafarroako eta Aragoiko errege, eta berez aski nazkatua bazen bidelapurrez, ez zuen baimenduko matxinada baten atarian Santxikorrota bezalako norbait herritarren heroi bihurtzerik. 1452. urtean 200 zaldun inguru elkartu zituen, horietako asko arestian aipatutako Hesolaren Ermandadekoak, eta cascantearraren bila abiatu ziren Bardeara. Buelta asko eman eta



SANCHICORROTA, BANDOLERO DE LAS BARDENAS
Egilea: Kepa Arburua Olaizola




DIME QUIÉN ERA SANCHICORROTA
2013.
Iraupena: 63 min.
Zuzendaria: Jorge Tur Moltó.
Gidoia: Virginia García del Pino, Jorge Tur Moltó.
Argazkia: Jorge Tur Moltó.
Ekoizlea: Fundación INAAC.

gero aurkitu zuten, eta borrokaldi gogor baten ostean, inguratuta eta bakarrik zegoenean, Santxikorrotak nahiago izan zuen gerrian zeraman daga bihotzean sartu bizirik entregatu baino.

Erregearen soldaduek Santxikorroren gorpua inguruko herrietan paseatu zuten, eta azkenik bere hilotza Tuterako hiri zaharraren erdigunean zintzilikatu zuten, hegazti harraparien eta begirada beldurtien bazka izan zedin.

Hala bazen hala ez bazen, hori da kontatzen dutena, eta ez esan film bat egiteko moduko istorioa ez denik! Biba Santxikorrota!

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS



AZTARNA EKOLOGIKOA

Unai Garcia Ingurumen Teknikaria (Grunver Sostenibilidad)

Greenwashing terminoak “garbiketa berdea” esan nahi du, eta munduko en-

presa kutsatzaileenek beraien irudia garbitzeko erabiltzen duten marketin teknika da. Kontsumitzaileak gero eta arduratsuagoak direnez, saltzen dituzten produktuek ingurumena errespetatzen dutela sinetsarazi behar digute enpresok, gezur hutsik esan ez baina egia osorik ere esan gabe.

Horretarako erabiltzen dituzten teknika sotilen artean hurrengoak ikusi genituen: inolako datu teknikorik aipatu gabe “ekologiko”, “bio” edo “jasangarri” terminoak aipatzea; produktuaren ingurumen-alderdi bati bakarrik erreparatzea (erabili eta botatzeko ontzi bat birziklagarria dela esan); legedia betetzen dutela aldarrikatzea (CFC-rik gabeko aerosolak); eta izatez kaltegarria den ekintza bat jasangarriaz mozorrotzea (hegazkina hartzea edo botilatutako ura edatea).

Gauzak horrela, ingurumen arloan adituak izan gabe eta marka edo produktuaren ezaugarriak sakon ezagutu gabe ere *greenwashing*-a identifikatzeko lehen tresna batzuk izan ditzakegu orain. Hala ere, oso nabarmenak diren kasuak aztertu genituen eta, edonon gertatzen den bezala, esparru honetan ere gris-espektro oso zabala dago. Ingurumena erabiltzen duen edozein iragarki *greenwashinga* da? Teknika hau erabili arren, gaizki dago enpresa kutsatzaile batek kalte

«Greenwashing»-a al da ingurumenaz baliatzen den edozein iragarki?

Joan den astean enpresa kutsatzaileen iragarkietan «greenwashing»-a non zegoen identifikatzen jakiteko ariketa sorta bat proposatu genuen. Gaurkoan, ikasitakoa finkatzen saiatuko gara, ingurumena erabiltzen duen edozein iragarki «greenwashing»-a ote den ala ez aztertuz.



Ekintzaile txiki batek bere dendako arropak ingurumena errespetatzen dutela esatea «greenwashing»-a al da?

GAUR8

gutxiago eragiteko esfortzua egitea?

Ikus ditzagun beste bi adibide, gaia ebatzi eta nork bere iritzia osatzeko.

ARROPA-DENDA EKOLOGIKOAK

Batetik, auzoko ekintzaile batek arropa-denda txiki bat muntatzen du, non material birziklatuz egindako produktuak salgai dituen. Bere arropak ingurumena errespetatzen dutela aldarrikatzen du, baina eskuz josten dituen arren, jantzien zuntz birziklatuen ehunekoa mugatua da, ez %100a.

Bestetik, ehungintzako multinazional batek %100ean birziklatuak diren materialak erabiltzen ditu arropak ekoizteko, eta ezaugarri hori frogatzen duten hiru egiaztargiri ofizial erakusten ditu jantzi bakoitzaren etiketan.

Ebazpena: lehenengo kasuan dendariak *greenwashing*-ean ohikoa den marketin teknika bat erabiltzen du bere produktua sustatzeko, baina asmoa ez da munduko enpresa kutsatzaileenetako bat dela ezkutatzea. Gainera, berak ez du kopuru izugarriak saltzeko kate-ekoizpena baliatzen, eta arrazoizko prezio bat kobratzen duenez, ez du behar kontsumitzaileak denbora gutxian produktua bota eta beste ale bat erostea.

Bigarren kasuan, berriz, multinazionalak egia esan dezake ehunen jatorri birziklatuaren inguruan, baina errentagarria izateko nahitaezkoa du bere produktuak etengabe erosi, bota eta berriro erosi ditzagula. Planeta suntsitzen



Kontsumitzaileok badugu zer egin: produktu jasagarrienak aukeratu. GAUR8

duen eredu ekonomikoa bultzatzen du, alegia.

Ingurumena baliatzen duen edozein iragarki *greenwashing* al da, beraz?

Ez. *Greenwashing*a munduko enpresa kutsatzaileenek izatez kaltegarria den eredu ekonomiko batek aurrera jarrai dezan erabiltzen dute. Badira baliabide jasagarriagoak erabiltzen dituzten enpresa eta kooperatiba txikiak, errentagarriak izateko lehengaiak munduko beste puntatik inportatu edo masan produzitzea beharrezkoa ez dutenak. “Garbiketa berdean” ohikoak diren marketen tekniketari estropezu egin dezaket arren, ingurumena hondatzen ari direla ez kutatzeko premiarik ez dute, eta, beraz, horiena ez da *greenwashing*a.

Gaizki al dago, orduan, multinazional batek kalte gutxiago eragiteko esfortzua egitea?

Ez. Airelinea, erregai-fosilen konpainia edo ehungintza multinazionalak ez dira inoiz jasagarriak izango, euren jarduerak berak intrintsekoki kaltegarriak baitira. Planeta gero eta gutxiago suntsitzeko ahaleginak egin arren, argi izan behar dugu enpresa hauen helburua irabazi ekonomikoak areagotzea dela beti, eta beharrezkoa dena egingo dutela beraien ekoizpen-ereduari eusteko. Ez dago txarto, hortaz, ingurumena apur bat gutxiago suntsitzeko ahalegina egitea, baina ez onartu planeta salbatzeko asmoarekin egiten dutela esaten duen propaganda.

Zer egin dezakegu kontsumitzaileok egoera horren aurrean?

Alde batetik, jasagarriagoak diren produktuak erostek merkatuak poliki-poliki bide horretatik jotzea eragin dezake. Bestetik, kontsumi-

tzen jarraitzeak berez kaltegarria den eredu ekonomikoa iraunarazten du.

Galdera honi ezin diogu erantzun zuzenik eman momentuz. Hala ere, ariketa praktikoa hauetatik gako batzuk atera ditzakegu: enpresa kutsatzaileenek kontsumitzaileok beraien jasagarritasunaren erantzule bihurtzea bilatzen dute. Ez genuke erosketak egin aurretik produktu eta marka guztien jarduerari buruz ikasi behar, ingurumenari kalte egiten dion produktu bat eskuratzea legez debekatuta egon behar litzateke-eta.

Hori gertatzen ez den bitartean, ea behintzat ikasitakoak produktuen iragazki berdeen atzean dagoena antzematuko balio digun.

(Artikulu hau joan den astekoaren jarraipena da, <https://labur.eus/MrSag>)

Uztailaren 18a

Xabier Mikel
Errekondo

Uztailaren 18a ez da edozein egun. Geure historian, geure burmuinean, iltzatuta baitaude 1936ko hartan hasi zen estatutokolpeak eragindako kalteak.

Irrist askorik egin gabe esango nuke Legebiltzarrean eseriko den Voxeko hautagaiak garai ilun haiek gogo biziz berpiztuko dizkigula mailu-kolpez lez, behin eta berriz. Nago herra bereziz saiaturik dela guda odoltsu hura irabazi zutenen oinordekoa dela gogorarazten. Agian, ez da hain kaltegarri izanen; agian, frankismoa Frankorekin joan zela pentsatzen duen askori begiak irekiko dizkio. Agian, begi eta zentzuak luzera begira jartzen baditugu, konturatuko gara datorkigun burrunba-horda hau ez dela uste bezain hondar-zatia; aitzitik, Patxi zaharra hil eta ia mende erdira ere Euskal Herriarekiko Estatuaren aginte eremuetan oinarri politiko frankista beltz heretsi berberak jarraitzen duela betikotuta; egon Espainiako Gobernuaren Popularrak zein Sozialistak, eta berdin, ezagutu ez badugu ere, balitz Komunista.

Bakarra izan arren, mingarria da Legebiltzarrean Voxek eskuratu duen eserlekua. Baina, agian, zerbait onik ekar dezake; agian, zaunka frankistek Urkullu jauna Monopoly jokoaren lozorrotik esnaraziko dute eta behingoz abertzaleak omen diren eserlekuak bat egin eta elkarlanean hasiko dira.

Aitortzen dut oraindik ere lehen-dakari jeltzale apaizaren naftalina usainak zorabioak dizkidala eragiten eta bere tonu lo-eragile apartekoak zuri-beltzezko nodoetara naramatela, boterea paliopelan begitantzeraino. Agian, benetan ez da deus aldatu azkenengo 80 urteotan... •



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Bueltan da zentzu berria

Hala jakintsu berria, nola zuhurtzi berria. Ingelerazko «wise» hitzak aldaera horiek izan baititzake euskaraz, eta, egunotan zerrua zeharkatzen duen kometa ikusgarria, «Neowise» bezala ezagutzen baita, hitz jolasari bide emanez. Jatorrizko hitz jolasa, dena den, NASAk asteroideak ehizatze sorturiko proiektuaren izenean datza; «Wide-field Infrared Survey Explorer» berria da pasa den martxoan C/2020 F3 kometa antzeman zuen teleskopioa, «Neowise» izenez bataiatu dutelarik berau.


Izena gorabehera, kometaren interesa bere tamainan eta jatorrian dago. Oorteko Hodeitik datorrenez, Eguzki Sistemari bide eman zion nebulosaren informazio iturri da Neowise kometa, bere sorrerako material prozesatu gabea duelako. Dena dela, gaueko zeruaz gozatzen dugunontzat, bere tamaina da garrantzitsuena, biko magnitudeaz 1997ko Hale-Bopp mitikoa baina ikusgarriagoa izaten ari baita 6.800 urte pasa arte berriz pasako ez den kometa.

Artikulu hau irakurgai denerako (hilak 18) kometaren egun argitsuenak pasatuta izango dira, ipar-ekialdeko ortzi mugan ikusgarri izan delarik egunsentiaren aurretik. Dena dela, aste honen hasieratik ere, iluntzean ikus dezakegu ipar-mendebaldean, Hartz Nagusiaren azpialdean, egunez egun gero eta gorago, baina gero eta dirdira txikiagoarekin. Uztailaren 23an Lurretik gertuen pasako den arren, hilaren 3an Eguzkiaren periheliotik pasa zenetik gutxitzen ari da bere dirdira, hark eragiten baitu arroka izoztuaren materialak sublimatu eta isats ikusgarria sortzea. Lerrook idaztean oraindik ikusteke badut ere, begi bistaz ikusgarri hila-ren amaiera arte izango omen da.

Baina jakina, prismatiko edo teleskopiorik eskura izanez gero, esperientzia politagoa izango da. Zeruari begira jarri garela, ilundutakoan Jupiter eta Saturno izango ditugu ikusgai hego-ekialdean, gau osoan presente izango direlarik. Martitz apur bat beranduago aterako da ekialdetik, 01:30ak aldera, eta Artizarra ere ikusgarri izango da, zonalde berean, 04:30etatik aurrera, gutxi gorabehera.

Esan bezala, aste pare batean agur esango digu Neowisek, berriz ere 9000. urtean itzultzeko, halakorik noizbait izango bada. Izan ere, azkenengoz Lurra bisitatu zuenean ez baitzuen inork K.a. 4800. urtea bezala ezagutzen garai hura. Ez Niloren ertzean finkatzen hasi ziren talde nomadek, ez Europa mendebaldean nekazaritzan hasi zirenek, ezta Asian

arroza eta Erdialdeko Amerikan artoa landatzen hasi zirenek. Mesopotamia eta Indian gorpila garatzen ari zirenek ere ez zuten pentsatuko zeruan ikusten zuten kometa hori berriz itzultzean asmakizun haren garrantziaz mintzatuko ginenik oraindik, ezta guretzat oraindik misterio bat izango zirenik garaian has-tapenetan ziren Stonedge moduko eraikuntza megalitikoak. Are gutxiago jakingo zuten nekazaritza jarduerak zabalduko zuen komertzioak gizateria osoa esklabo bihurtzeko bide emango zuenik, beharrak desirekin nahastuz eta bizitzak kapitalaren mendean jarriko zituen zikloari hasiera emanez. Gaur ez dugu etorkizun urrunak aurreikusteko gaitasun handiagorik, baina, agian, Neowisek ekarriko digu jakintzan eta zuhurtzian oinarrituriko zentzu berri baten aroa. •



Neowise kometaren argazkia, uztailaren 10ean Iberiar penintsulatik hartua.

TALLSFALLS

{ koaderno } **Joana Garmendia**

Abstentzio isila

Batzuetan, isilik egotea ezer ez egitea da. Bakarrik gaudenean, askotan, isilik gaudete. Beste norbaiti entzuten ari garenean, askotan, isilik entzuten diogu. Beste batzuetan, ordea, isilik egotea zerbait egitea da. Erabaki bat ere izan daiteke, askotan: esan nezake zerbait, baina isilik geratuko naiz. Esan nahi duzuna adieraztea, noiz eta nola, izan daiteke eskubide, pribilegio edo betebeharrak. Berdin da isilik geratzeari.

Isilik geratzeari, askotan, ekintza bat da. Ekintza hori oso formalizatua dago zenbait egoeratan. Bikote bat ezkontzen ari denean, bertan daudenei eskatzen zaie, ezer esatekorik badute, esan dezatela; bestela, betiko isiltzeko. Egoera horretan, isilik geratzeari ezer esatea bezainbat da zerbait egitea. Poliziak, atxilotzen zaituenean, azaltzen dizu badaukazula isilik geratzeari. Gure gizarteetan, batzuetan, minutu batez isilik geratzen gara, isiltasun horrekin zerbait ozen adierazteko.

Isiltasunak badu lekua ohiko komunikazioan ere. Norbaitekin hizketan ari garenean, zerbait adieraz dezakegu isilik geratuta. Elkarriketa batean, zerbaiten erantzuna ez dakigula adieraz dezakegu, adibidez; edo, jakinda ere, nahiago dugula ez esan. Isilik geratzeko erabakia ahoz gora adieraz dezakegu, nahi izatera: «hobe isiltzen bainaiz!», «isildu egingo naiz...», «ez daukat ezer esateko». Keinua ere badu isilik geratzeari: ezpainen giltza ixtearena egiten dugu, edo ahoa kremailez jostearena.

Isiltzea erabakitzeak arrazoi askotarikoak daude. Beldurratetik isiltzen dira asko eta asko. Esan nahiko luketena esateak mesederik egingo ez dielako, beste batzuk. Behartuta isiltzen dira, isilarazten dituzte, gehiegi. Zer esanik ez dutelako. Hitz egiteari alferrikako irizten diotelako. Zer esan, nola esan, ez dakitelako.

Joan den igandean 809.990 pertsona isilik geratu ziren Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian. Galdetu zi-

tzaien, eta ez zuten erantzun. Horietako batzuei, galdetu bai, baina ez erantzuteko ere ohartarazi zieten. Giltzarrapoa marrazturik duten musukoak, seguru nonbait badirela honezkero. Bat baino gehiago oporretan omen zebilen, ezer esateko urrutiegi, edo erantzuteko nekea hartzeko gozoegi. Batzuk beti geratzen dira isilik. Beste askok, ez zuten zer esanik izango; «hobe isilik», pentsatuko zuen batek baino gehiegok.

Arrazoi asko izan litezke jendearen isiltasuna azal dezaketena, igandeko abstentzioari eragin diotenak. Baina isiltasun guztiak ez dira berdinak. Igandean, zenbaitek, ezin jakin zenbaterik, ezetz esateko erabaki zuen isiltzea. Ezetz, zeri? Hauteskundeetan egiten zaigun galdera bakar horri, ezetz; hauteskundeak noiz eta orain, nola eta horrela, egiteari, ezetz; geneuzkan erantzun mugatu horien baliozkotasunari, ezetz. Edo beti bozkatu izan dutenari berriro bozkatzeari, ezetz.

Arrazoi asko izango zituen jendeak igandean isilik geratzeko. Saiatu behar genuke, orain, arrazoi horiek

Biharamunean bertan irakurri nion inori isilik geratu ziren guztiak berari baietz esaten ari zirela. Egun eguzkitsu batean hondartzan elkarretaratzea deitu eta egun horretan hondartzan den oro zure deira bildu dela esatearen pareko da hori

aletzen, eta joera bakoitzaren pisua neurtzen. Isiltasunak interpretatzen. Baina joka dezagun zintzo. Biharamunean bertan irakurri nion inori isilik geratu ziren guztiak berari baietz esaten ari zirela. Ez bozkatzeko deia egin zuela berak, eta bozkatu ez duten guztiak bere alde kontatu litezkeen bozkek direla. Abuztuko egun eguzkitsuan hondartzan elkarretaratzea deitu, eta egun horretan hondartzan den oro zure elkarretaratzeri bildu dela esatearen pareko da hori. Ez da serioa. Esango nuke hori baino gehiago ere, baina isildu egingo naiz. •

«Kezkatzekoak ez dira autismoaren edo hiperaktibitatearen sintomak, horiek haurrari sortzen dizkioten arazoak baizik»

Autismoa eta hiperaktibitatea kaleko hizkeran modu arinegi antzertatuta dauden hitzak dira. Autismo espektroaren nahastea (AEN) eta Arreta Defizitaren Nahasmendua eta Hiperaktibitatea (ADNH) herritarren %5 ingururi eragiten dioten nahasmenduak dira. Kasu askotan, diagnostikorik gabe.

Duela egun batzuk Bilbon elkartu dira adituak UPV/EHU-ren udako ikastaroen harira nahasmendu horien inguruan aritzeko. Tartean izan da Jonatan Molina alacantarra, haurren eta nerabeen arloan espezializatutako psikologoa.

ADNHaz aritu da Molina. «Nahaste horren zailtasun handiena norbere burua erregulatzeko zailtasuna da; ez altxa orain ez delako unea, ez esan hori errieta egingo dizutela, ez egin hori tokiz kanpo dagoela... neurri horiek hartzeko ezintasuna da». Molinaren hitzetan, «buruaren erdian ordainlekuetako barrera horietako bat daukagu. Zerbait okurritzen zaigunean, barrera jaitsi egiten da eta aztertu egiten dugu egitera goazena egin edo ez egin. ADNH duten haurrek barrera hori etengabe goian daukate, altxatuta. Ez daukate iragazkirik beren burua erregulatzeko orduan».

Zer da ADNH?

Arraro samarrak suerta daitezkeen siglak dira ADNH. Baina hiperaktibitatea edota Arreta-Defizitaren Nahasmendua eta Hiperaktibitatea esanez gero,

ezagunagoa egiten zaigu, ezta? Finean atentzio eza, inpulsi-bitatea eta hiperaktibitatea bezalako arazoak sortzen dituen nahasmendua da. Haurraren adinarekin bat ez datozen sintomez ari naiz eta hori datu garrantzitsua da. Finean, haur guztiek, gehiago edo gutxiago, sintomatologia hori izaten dute, baina ADNH daukan haurraren kasuan sintoma horiek oso nabarmenak dira, neurriz gorakoak, eta arazoak sortzen dizkiote bere egunerokoan. Eskolan, besteekin harremantzeko orduan, etxekoekin... arazoak izaten ditu haurrak jokaera horien ondorioz.

Askotan, hizkera arruntean, «horrek autista dirudi» edo «hori hiperaktiboa da» errazegi esaten da, ezta?

Bai, halaxe da, eta erabilera horiek maiz nahastea sortzen dute. ADNHaz ari garenean ez gara ari asko mugitzen den edo bihurria den haur bati buruz. Denboran luzatzen diren eta haurraren egunerokoan arazo larriak sortzen dizkioten jokaerez ari gara. Finean, nahasmendu bati buruz ari bagara horixe esan nahi du, haurraren bizitza nahasten duen arazo bat dela. Mugitua edo pixka bat despistatua den haur bati buruz ari bagara, eskolan, etxean eta lagunekin ondo moldatzen dena, ez gara nahasmendu bati buruz ari.

Zein da nahasmenduaren jatorria?

Psikologiak uneotan daukan galdera potoloetako bat da hori, artean erabat erantzun ezin dena. Garbi dagoena da here-

dagarritasun maila altua dela. Kasuen %70ean heredatutakoa izaten da. Horrek esan nahi du ADNH daukan haurraren gurasoetako batek nahasmendu hori bera daukala, nahiz eta askotan diagnostikatu gabeko kasuak izan.

Badira beste faktore batzuk. Adibidez haur oso goiztiarretan edota jaiotzerako orduan oso pisu txikia izan dutenetan, kasu gehiago ematen dira. Finean, ADNHa neurogarapenean ematen den nahaste bat da, garunaren garapenean gertatzen den arazo bat. Horregatik, oso goiz jaio diren haurrek edota pisu oso txikia izan dutenek, beren garapena ez dute erabat osatu, hutsuneak gertatu dira eta hazten doazen neurrian, horiek nabarmendu egin daitezke eta ADNH bat ekarri.

Azken urteotan kasu gehiagoren berri izaten ari gara. Kasu gehiago daude edo hobe diagnostikatzen dira orain?

Nahastearen prebalentzia paretzu samar mantentzen da, ez bakarrik urteen joanean, baita herrialde eta kultura desberdinetan ere. Datuen arabera, herritarren %5 inguruk dauka ADNH. Egia da orain askoz ikusgarriagoa dela, nahasteari buruz askoz gehiago dakigula eta hobeto identifikatzen dugula. Gainera, badira eragina izan dezaketen faktore sozialak; gehiegi mugitzen den haur batenganako tolerantzia eskasagoa, haurra modu librean mugitzeko espazio gutxiago... baina horrek ez du esan nahi faktore sozialek ADNH kasu gehiago sortzen dituzte-

JONATAN MOLINA TORRES

HAUR ETA NERABEEN PSIKOLOGOA

Duela egun batzuk Bilbon egon da Alicanteko aditua, UPV/EHUK antolatutako udako ikastaroetan. Oso modu argigarrian

hitz egiten du autismoaz eta hiperaktibitateaz.



Argazkiak: Aritz LOIOLA | FOKU

«Arreta Defizitaren Nahasmenduaz eta Hiperaktibitateaz ari garenean ez gara ari asko mugitzen den edo bihurria den haur bati buruz. Denboran luzatzen diren eta haurraren egunerokoan arazo larriak sortzen dizkioten jokaerez ari gara»



nik. Akaso gerta daiteke berez ADNHRako joera daukan haurraren sintomak areagotzea egungo baldintza sozialetan. Hori gerta daiteke, baina inongo faktore sozialek ez dute nahasmendua sortzen kasu bakar batean ere.

Zure hitzetan, ikasgela guztietan dago ADNHa daukan haur bat eta, akaso, diagnostikatu gabeko besteren bat.

Bai, diagnostikatu gabeko kasu asko daude. Finean, gurasoek hor arazo bat dagoela igarri behar dute lehendabizi eta gero buruko osasuneko aliabideren batengana jo, izan publikoa edo pribatua. Hortik aurrera profesional bati dago kio diagnostikoa egitea.

Baina diagnostikatu gabeko kasuak aipatzen ditudanean, ADNHa izateko sintoma guztiak izan gabe, beren atentzio gabeziak, inpulsibitateak eta

hiperaktibitateak arazoak sortzen dizkieten haurrei buruz ari naiz. ADNHa diagnostiko garbi bat izateko, sintoma kopuru jakina izan behar da garbi. Baina, batzuetan, sintoma horiek denak izan gabe, laguntza behar duten haurrak badaude.

Diagnostikoa izateak laguntzen al du haur horren ongizatean?

Bai. ADNHaren kasuan, normalean kronikoa den nahasmendu bati buruz ari gara. Haurrak ADNHa izateko aurretiko joera genetikoak dauka eta sintomak oso txikitatik hasten dira agertzen. 0-3 urte bitartean sintoma horiek lausoagoak dira; jenio biziko haurrak dira, oso erraz haserretzen direnak, gaizki jaten dute, gaizki lo egiten dute... Haur hezkuntzan hasten direnean gehiegizko mugimendu hori hasten da

igartzen eta, 6 urtetik aurrera, atentzio gabezia.

Baina nahasmendu kronikoa da eta diagnostikorik eta esku hartzerik gabe, nahastea bere kasa zabalduko da. Frogatuta dago ADNHa daukaten helduek istripuak izateko arrisku handiagoa dutela, zauriak eta lesioak izateko aukera handiagoa eta baita bizi itxaropen murriztagoa ere. Azken finean, ADNHa lotuta duten inpulsibitateak arrisku handiagoko praktikak egitera bultzatzen ditu. Horregatik, garrantzitsua da diagnostikoa ahalik eta goizen egin eta nahastea ez areagotzeko lanean ahalik eta azkarren hastea.

Esku hartze hori, botikekin eta psikoterapiarekin egiten da? Kasu bakoitzarentzat bere neurrirra?

Haurren kasuan, 3-5 urte bitartean, psikofarmakologia ez da

lehen hautua. Adin horretan gurasoen entrenamendua da lehen aukera. Hartara, gurasoekin lan egiten da haurraren zenbait jokaera eusten eta moldatzen laguntzeko estrategiak irakatsiz. Horrekin ez dira sintomak desagertuko, baina haurrari laguntzen zaio nahasteak sortzen dizkion arazoak modu hobean kudeatzen, horretarako tresnak eskaintzen zaizkio.

Azken urteotan ikerketa asko egiten ari dira norabide horretan. Jarduera fisikoa eta jolasak uztartzen dituzten zenbait programa neurokognitibo ADNHa duten haurren gabeziak indartzen saiatzen dira; atentzioa, inpultsoak eustea, arauak betetzea... Badirudi jolas horien bitartez lortzen dela ADNHa duen haurraren garunean garatu gabe dauden zenbait funtzio indartzea. Adin goiztiar horietan horiek dira

gailentzen ari diren esku hartzeen norabideak.

Horiez gain, eskolako lana dago. Eskolan zenbait prozedura, estrategia eta metodologia indartu behar dira ADNHa duen haurra hobeto molda dadin.

Botikak behar diren kasuetan, termostatoaren metafora aipatzen duzu.

Hori da. Botikak, finean, baldintza optimoak jartzen ditu haurrak estrategia kognitibo bat aurrera eraman dezan. Beharrezkoa eta komenigarria den kasuetan, medikamentuek hori egiten dute, baldintza egokiak sortu. Nik termostatoaren metafora erabiltzen dut nire hitzaldietan. Hitzaldia ematen ari naizen gelan, termostatoa puskatu eta neguan bost gradu egiten baditu, nekez lortuko dut parte hartzaileek nire hitzei arreta jar-

tzea. Edo alderantziz, berrogei gradu egiten baditu, beroak akabatzen egongo dira denak eta ez didate kasurik egingo.

ADNH duen haur baten kasuan, kasuak hala eskatzen duenean, medikamentuek termostatoaren lana egiten dute, baldintza egokiak sortzen dituzte. Baina, hortik aurrera, nahiz eta baldintza egokiak egon, gerta daiteke haurrari ez interesatzea egin behar duena edo ez jakitea nola egin behar duen. Horregatik, psikoterapiak sekulako funtzioa dauka, haurrak berez garatu ez dituen gaitasun batzuk entrenatzen laguntzen duelako; kontzentrazioa, antolaketa, bere buruaren kontrola...

Beraz, botikak baldintza egokiak sortzen ditu, baina botikek ez dizkiote estrategiak erakusten haurrari. Hori psikoterapiaren egitekoa da eta horregatik da hain garrantzitsua.

Hezkuntza sistema prest al dago kasuak detektatzeko eta horiekin egoki lan egiteko?

Tira, hezkuntza sisteman alor publiko askotan bezala gertatzen da maiz: gehiegizko burokraziaren eta zama administratiboaren ondorioz, kasu bat atzematen denetik diagnostiko bat egiten denera oso balioetsua den denbora joan daiteke. Gainera, buruko osasunarekin lotutako baliabide publikoak gainezka daude. Oso ohikoa da ADNHa daukan haur batek buruko osasuneko kontsulta bat izatea hiruzpalau hilabete behin eta horrek asko zailtzen du tratamendu egoki bat emateko modua.

Hala ere, mentalitate aldaketa bat gertatzen ari da. Bilbon izandako udako ikastaroetan, laurogei bat parte hartzaile izan dira eta, gehienak, irakas-



leak. Irakasleak gero eta kontzienteago dira formakuntza behar dutela beren ikasleen artean ADNHa atzemateko. Ez da lantegi erraza, formakuntza espezifikoa behar delako eta nahastea oso ondo ezagutu behar delako, baina itxaropena badago, hezitzaile asko beren burua prestatzen ari direlako. Irakasle ia guztiek beren lan ibilbidean barna ADNHa kasuren bat ezagutuko dute. Haur hori erronka bat da irakaslearentzat, baliabide onenak eskaini behar baitizkio bizitzan aurrera egin dezan. Mentalitatea aldatzen ari da.

«Mentalitate aldaketa bat gertatzen ari da. Irakasleak gero eta kontzienteago dira formakuntza behar dutela beren ikasleen artean Arreta Defizitaren Nahasmendua eta Hiperaktibitatea atzemateko»

Beste gauza bat da, eta horiek ur handiagoak dira, eskolak zenbat eta nola hobetu behar duen ikasle bakoitzari behar duen arreta eskaintzeko, bere ahulguneak eta indarguneak identifikatzeko, behar duena emateko eta eman dezaakeena eskatzeko.

Bilbon izandako ikastaroan beste ertz bat ere landu duzue: eskola espezifikoak edo eskola inklusiboak. Erantzun orokor bat ematea zaila da, kasu bakoitza desberdina delako. Ikasteko orduan zailtasun bat izatetik, dislexia

bat adibidez, hizketarik ez dagoen autismo zorrotz bateraino doazen kasuez ari gara. Horregatik, zaila da orokortzea eta haur guztientzat aukerarik onena zein den esatea.

ADNHaren kasuan, frogatuta dago ikasgelan bertan hartzen diren neurriek eta erabiltzen diren teknikak emaitza onak ematen dituztela. Nahastearen sintomak samurtzea baino, sintoma horiek haurrari arazorik ez sortzea da helburua. Nik beti esaten dut kezkatzeak ez direla ADNHaren sintomak, sintoma horiek haurrari sortzen dizkioten arazoak baizik. Arreta arazoak, inpulsibitatea eta hiperaktibitatea dituen haur batek egunero arazo larriak izango ditu eskolan; etxeko lanak egitea ahaztu zaiolako, irakasleak ohar bat jarri diolako agendan, lagunek ez dutelako berekin jolastu nahi, etxean errieta egiten diotelako... Esku hartzeen helburua nahasteak sortzen dituen arazo horiek samurtzea izan behar da, haurrak gainetik ken dezan porrotez betetako motxila hori. Nik uste dut eskolak bide horretan lan egin behar duela, motxila hori arintzen lagundu behar diola eta badaude horretarako estrategia egokiak eta eraginkorrak.

DCR estrategia aipatu duzu ikastaroan. Ikasgelan bertan erabil daiteke, haurra atera gabe. Datu garrantzitsua. Estrategia erraza da, kostu baxukoa eta gelan bertan egin daiteke, ADNHa duen haurra gelatik atera eta gehiago estigmatizatu gabe. Askotan haurra bere nahasteak sortzen dizkion arazoak lantzeko gelatik ateratzen dugu eta, bitartean, ikasgelan gertatzen dena galtzen du eta bere gaineko estigma areagotu egiten da. Gelan

bertan ematen diren esku hartzeak dira egokienak, ez dute trabarik sortzen, haurrak gelako martxa jarrai dezake eta irakasleek maneiatzeko modukoak dira. Hori datu garrantzitsua da. Alferrik da oso eraginkorra den tresna bat edukitzea gero irakasleek modu errazean ezin badezakete erabili ikasgelan duten errealtatearekin eta ratioekin.

Nik proposatu dudan estrategia DRC deiturikoa da; eraginkorra da, gelan bertan erabili daiteke, kostu baxua du eta irakasleak ez du denbora asko behar aurrera eramateko.

DRC estrategia egunero helburuak finkatzean datza.

Haurraren neurrira egindako jantzi bat da. Hori datu garrantzitsua da, DRC bakoitza desberdina delako, haurrak dituen beharren arabera. Haur batzuek arazo gehiago dituzte maila akademikoan, beste batzuek maila sozialean, beste batzuek jokaera arazoak dituzte... Hartara, lehenik haur horrentzat egokiak eta lorgarriak diren helburuak finkatu behar dira. Lorgarriak izatea oso ga-

«Askotan ikasgelan traba egiten duen haur bat da, bihurria, astuna, txandak errespetatzen ez dituen... horrelako kasuetan askoz zailagoa da enpatia sentitzea eta jokaera horien atzean nahasmendu bat dagoela ulertzea. Horregatik oso garrantzitsua da tutoreak gelan gaia ondo lantzea»

rrantzitsua da. Adibidez, ez da oso errealista haurra egun osoan aulkitik ez altxatzea finkatzea helburu bezala. Seguruen ez du lortuko. Egunean behin edo bitan bakarrik altxatzea, adibidez, helburu egingarriagoa izan daiteke. Behin helburu egingarriak finkatuta, horiei lotutako sariak zehaztu behar dira. ADNHa kasuan funtzionatzen duten gauzak biltzen dituen estrategia da; indartze positiboa, epe motzeko helburuak, motibazioa eta haurraren inguruan lan egitea.

Hori oso garrantzitsua da. Profesional askok kontsulta batean lan egiten dute ADNHa duen haurrarekin, mahai batekin, fitxa batzuekin... frogatuta dago horrek ez duela funtzionatzen. Haurraren eguneroko inguruan txertatzen diren estrategiek funtzionatzen dute, eskolan eta etxean kasu.

Lehen aipatu duzunez, ADNHa kasuen %70ek jatorri genetikoak dute; alegia, gurasoetako batek ere ADNHa du. Pentsatzekoa da eskolaren eta etxearen arteko elkarlana eskatzen duten estrategia

horientzat traba bat izango dela hori.


Horrela da. ADNHa duten helduetan zailtasun handienak honakoak dira; beren burua antolatzeko gaitasun gutxi daukate, gauzeekin berehala aspertzten dira, gauza asko ahaztu egiten zaizkie... Irudika dezagun jokabide-eredu hori duen heldu bat ADNHa duen haur batekin. Haurren kasuan, egunero erronka bat da. Informazio kliniko horrek, jatorri genetikoarenak, izugarri laguntzen digu estrategiak presatzeko orduan. Izan ere, badakigu ez dela nahikoa gurasoei pautak sorta bat ematea, badakigu oso-oso gertuko jarraipen bat egitea beharrezkoa dela, ADNHa duen helduarentzat erronka zaila baita.

Aniztasunaren ikuspuntutik, ADNHa duen haur bat egotea ikasgelan haur guztientzako ikasgai garrantzitsua izan daiteke.

Haurrak orokorrean oso sentiberak dira behar bereziak dituzten lagunekin; ezintasun fisikoren bat duena, Downen sindromea duena... baina nor-

malean haur horrek ezaugarriren bat izaten du, fisikoa edo intelektuala, bere egoeraren berri ematen duena.

ADNH daukan haurraren kasuan, ez dago bereizgarriarik. Ikasgelan traba egiten duen haur bat da, bihurria, astuna, txandak errespetatzen ez dituen... horrelako kasuetan askoz zailagoa da enpatia sentitzea eta jokaera horien atzean nahasmendu bat dagoela ulertzea. Horregatik oso garrantzitsua da tutoreak gelan gaia lantzea, informazioa ematea, ADNHa zer den azaltzea eta haur horri nola lagundu esatea. Askotan ikaskideek laguntzen diote haur horri bere burua erregulatzen, esku hartze horiek oso interesgarriak izaten dira. Nola? Urduri ikusten badu egitekoren bat ematen dio; aulkitik altxatzen bada, irakasleak errieta egin aurretik, berriz esertzeko esaten dio... ikaskideak oso-oso garrantzitsuak dira. Izan ere, ADNHa duten haurren portzentaje altu batek bazterketa jasaten du eta beste batek erasotzailearen profila garatzen du.





Maitena Usabiaga Sarasua
Sexologoa eta psikologoa

Normalitate berria



Normalitate hitza **de-**non ahotan dagoen honetan, **buruari bueltaka nabil. Normalitate berria bada- go, moralitate berri bat egongo da?**

Azkenaldian irakurtzen aritu naitzenaren arabera, horrela dirudi. Sexologiako aditu batzuek ez dute ez denbora ezta aukera ere galdu gure ohetan sartu eta zer egin eta zer ez esateko (agintzeko?). Ez da gauza berria, dakigunez, moralak beti nahi izan baitu gure intimitatean sartu eta zer egin, non, norekin, noiz...arautu.

Sexuarekin zerikusia duen guztia halako kutsu ilun batez estalita egon da azken urte luzeetan. Dirudienez, sexua arriskutsua da, zikina, kontuz ibili beharreko zerbait. Etengabe jasotzen ditugun mezuek "kontuz" esaten digute. Kontuz haurdun geratzearekin, gaixotasunen transmisioarekin, indarkeriarekin, perbertsioekin...

Patologizazioa izan da erabili duten erremintetako bat, ez bakarra, baina oraindik ere etiketak jartzeko tentazioa hor dagoela dirudi, eta aditu askok etiketon erabilpenean sinisten jarraitzen dute. Etiketak beren funtzioa izan dute, onaren eta txararren arteko muga zehazten dute, normala eta anormala denaren arteko desberdintasuna zehaztuz. Horrela, normatik ateratzen den oro, gaixotasun bihurtzen da, patologia, desbideratzea, perbertsioa... Desberdina dena txarra da, eta puntu.

Etiketak jarri dizkigute osasunaren izenean; pertsona duinak izateko, normalak, osasuntsuak, osoak izan behar dugu. Eta zerekin topatzen gara orain? Berdinarekin. Birus honen agerraldiak ate berriak ireki ditu osasunaren izenean muga eta arau berriak jartzeko, baita gure erotika bizitzeko moduan ere. Adituen hitza egia absolutua bihurtu den honetan, askok eskuliburu modukoak sortu dituzte oheko jolasek nolakoak izan behar duten esateko; maskara erabili, ez muxu eman, ez ligatu pertsona batekin baino gehiago, ez izan promiskuo, ez izan kontaktu fisikorik, pantailaren bidez izan harremanak, masturbatu, norbait ezagutzen duzunean gaixo egon den galdetu... Eginbehar gehiago. Ez dugu ezer ikasi?

Eginbeharrak eta gure plazerak ez dira ondo konpontzen. Horrelakok esatean gauza bat bakarrik lortzen dugu: jendea errudun sentitzea eta beldurtzea. Hori da nahi duguna? Zein prezio jartzen diogu gure askatasunari? Osasunaren izenean gure eskubideak eta askatasunak bortizki jipoitzen ari diren garaiotan, gure ohetara sartzen utziko diegu? Sexologoa naizen honetan zerbait ikasi badut, zera da: bakoi-tzak gure bide propioa dugu, erotikak bere esentzia propioa du eta arauok gure bizipenetan izugarriko mina sortzen dute. Informazio eta nork bere burua ulertzeak garamatza jakintzara, gure buruak zaindu eta errespetatzera. Beldurrak eta kontrolak sortzen dute benetako patologizazioa. •



Normalitate berriak egoera bitxiak sortzen ditu. Irudian, bikote bat Donostian.

Jon URBE | FOKU

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



EUSKARAREKIN LOTURA OSO ESTUA ZUEN LUIS LUZIANO BONAPARTE

Luis Luziano Bonaparte (1813-1881) Napoleon Bonaparteren iloba zen. Bi-garrenez, Marie Clemence Richard zuberotarrarekin ezkondu zen, euskalkiak eta euskal toponimia ezagutzen zituenarekin. Historialari batzuek Antoine d'Abbadie lagunaren bitartez 1855ean Londresen egindako topaketa batean kokatu zuten Bonapartek euskararekiko zuen interesa, baina 1856ra arte ez zen Euskal Herrira lehen aldiz etorri, eta garai hartako euskararen aditu garrantzitsuenetako batzuekin adiskidetasun eta lan harremana egin zuen: Jean Pierre Duvoisin aduana-kapitaina, Frai Jose Antonio Uriarte, Emmanuel kalonjea, Bruno Etxenike idazlea, Antoine d'Abbadie geografo eta astronomoa eta geroago, Arturo Campion.

Euskarari buruzko hamaika artikulua idatzi zituen eta 30 lan baino gehiago argitaratu. Bere lanen artean, 1863ko "Carte des Sept Provinces Basques montrant la délimitation actuelle de l'Euscara y sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés" mapa nabarmentzen da; Bonapartek ezarri zuen sailkapen dialektala erakusten du, zortzi euskalki, hogeita bost azpieuskalki eta berrogeita hamar hizkera jasoz. Stanford's Geographical argialetxeak Londresen argitaratu zuen mapa hori.

1958an Riezu kaputxinoak Luis Luciano Bonaparteri buruzko artikulua bat idatzi zuen. Bertan zioenez, Bonapartek ikasi zituen herri hizkuntzen artean euskara zuen gustukoen. Hari buruz esan izan da inork ez bezala ezagutzen zuela euskara.

Alboan ageri den "Carte de visite" formatuko argazkiaren egilea Andre Disderi frantziarra izan zen, Parisko erretratugile klasiko ezagunenetako bat, Madrilan eta Londresen estudioa izan zuena. 1862an argazki-tratatu bat idatzi zuen, non adierazten duen argazki-erretratu batek balio artistikoa izan dezan honako baldintza hauek bete behar dituela: fisionomia atsegina, garbitasun orokorra (argi-itzaletan jokorik ez), proportzio naturalak, xehetasun ilunak eta edertasuna.



ireki gure leihoa

GAUR8

